

# EDIKTUA

## ALKATEAREN ESKUORDETZEA: EZKONTZAK OSPATZEA

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 1995eko urtarrilaren 26an eman jarraibidea kontuan hartuta, eta Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 44 eta 47. artikuluek eta haiekin bat heldu direnek xedatzen dutena ikusita.

Alkatetza honek EBATZI DU:

1.- Udal honetako zinegotzi guztien esku uztea Herriko Etxe honetan ezkontza zibilak egiteko eskumena, ezkontideek hala eskatzen dutenean.

2.- Erabaki hau Udaleko iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Etxarri Aranatz, 2019ko ekainaren 24an

ALKATEA, Silvia Marañon Txasko.

